

I 2019ko abendua I



“Ate bat zarratzen den guztietan beste bat zabaltzen da” María Tatoren esanetan. Maríak, bokaziozko ekintzailea 23 urte zituenetik, hizlaria, unibertsitateko irakaslea..., Mikel Renteriarekin (“WOP Challenge” sustatzailea eta sortzailea) batera, pasa den abenduaren 12an, Bilboko San Mames Estadioan, [SAREKIN-Bizkaia Ekinean](#) Saloiaren baitan izandako lankidetzaren boterearen inguruko mahai-inguru baten parte hartu zuen.

Sarekin, Bizkaiko Ekintzaitza Sarea Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, DEMA Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentziaren bitartez, bultzatutako proiektutik sortzen da. Bertan, Bizkaiko ekintzaitza sistemako eragile eta erakunde guztiek parte hartzen dute, beraien baliabideak eta zerbitzuak ekintzaitza komunitateari errazteko konpromisoarekin; horien artean, Leartibai Garapen Agentzia eta Azaro Fundazioa.

Jardunaldia eragileen, erakundeen, enpresen...elkarlanaren botereaz hausnartzera eta bere ekintza plana aurkeztera bideratua egon zen. Foru Aldundiko Enplegu Ahalduak, Teresa Laespadak, hasi zuen saioa, pertsona guztiei, entitate, erakunde eta instituzioei ekintzaitza sarea sortzeko egindako lanarengatik eskerrak emanez. Ondoren, Adela Balderasen txanda heldu zen, nork sarearen hasiera eta helburu nagusiak gogorarazteaz gain, koordinazio-taldea ere aurkeztu zuen. Halaber, Beatriz Morcillok berriak eta aurreikusitako akzio plana erakutsi zituen eta parte-hartzaileei beraien ideiak gehitzeko gonbidapena luzatu zien. Sarekin Saloira bertaratu zirenak 50 baino gehiago izan ziren, guztiak ekintzaitza ekosistemarekin lotutakoak.

Sarekin sarearen baitan datorren urterako aurreikusitako ekintzen artean “Sarekin Week 2020” aipatu behar da. Bizkaiko ekintzaitza komunitateari zuzendutako gune interaktibo bat izango da, non ekintzaitza esparruarekin eta bere fase ezberdinekin lotutako ekintzak eta jarduerak antolatuko diren. Enpresen sorreraren gidaliburu bat garatzeko asmoa ere badago.

